

MIKEL LASA EDO AMERIKA DESKUBRITU EZ DUAN BAT



M. Lasak azkeneko **Jakin**-en («Euskal kulturaren kinka larria») Arestiren jarraitzaileeri egiten digun kritikarekin ezin esan diteke Amerika deskubritu duanik. Zenbat aldiz ez gara gure artean gai horri buruz mintza izan —M. Lasa berarekin ere egin izan dut behin baino gehiagotan— Euskal eskritoreen «dandysme moderene» falta sumatzeko ez da oso bizkorra izan beharrik; «Litote»-a, gutxi esan gehiago entenditu arazteko eta parabola erabiltzen ez jakitea, reserba ta diskrezio falta, hots, dotoretasun falta, sumatu ahal baino, muturreko bat bezala ateratzen dela gure izkribuen lerro bakoitzetik ezin ukatu. M. Lasaren kritikari ezin kendu dezaiokegu ba hitz bat ere eta erantsi agian bai, bat baino gehiago gainera, baina hala ere zera esan nahi nuke erreza dela behar lirake, litzake, luke eta besteak konjugatzea. Euskal eskritoreek hobeagoak behar luteke izan, irakurleek intelektualagoak, guziek ugariagoak. Bai, eta nola. Euskal unibersitatearen bidez agian?

Bainan guzi hau esatea denbora galtzea besterik ez da nire aldetik, ados bainago M. Lasaren kritikarekin eta ikusten baidut gainera ez Aresti ez Arestistak eta ezta M. Lasa bera ere ez garela kritika hortatik salbatzen. Alferrikakoak ba nire hitzak, baina nolana ere permititu lerro batzuek gehiago.

Lehenik, esan behar dut, marjinalismoa dela gure birtuterik handiena, euskal liburu baten tirada esturiatu genuanean, espezializatzeke eta profesionalizatzeke ametsak hautsi zitzaizkigun. Beste zenbait «gauzatxo» konpondu baino lehen hortaz pentsatzea ere adoleszentismoa ez ezik infantilismoa deritzait.

Urrenik kritika hori, ideiak buruan bueltak emanaz zahartu egiten dira nunbait, pasatu egin direla apurtxo bat behintzat, adoleszentismoagatik, intimismo eskas bategatik, tremendismoagatik eta beste bizpahiru gaitz konprenigarritik (konprenigarri: hogeit urte genituen gehien eskribatzen genuen garaiean) libratu baigara, gure Aita Arestik gureetako bost edo sei liburu argitaratzeko sosa lortzean demostratuko den bezala.

Eta azkenik, ez nitzakela, ni behintzat, esate baterako Cuba-ko Erreboluzioaren ondorioen kritika bat askorek entzuteko eran egiten ausartuko, beste askoren ekintzen ondorioak merezi baidituzte gure kritikatzeko kapazitatearen zatzateko guziek. Zeren eta kritika batzuek, egizkorrak izanik ere, inteligentek ez badira, hau da, segun nori, noiz, nun eta nola izan izan baiditezke kontrarreboluzionarioak. Eta M. Lasak ez du noski erreakzionario bezala azaldu nahiko.

Eta azken urrena: Promesa bat. Ni baino gazteagoen kritika inoiz ere ez egiteko hitza ematen dut.

R. S.